

EHAA V. liburukia

Zinez garrantzitsuak dira, hizkuntza ooren bilakaeran, dialektologia-ikerketak. Are garrantzitsuagoak, zer esanik ez, euskararen kasuan, euskalkiek gorpuztu eta norabidetu baitute, urte luzeetan zehar, euskal hizkuntzaren bilakaera eta ibilbidea. Horren jakitun izan da, hasiera-hasieratik, Euskaltzaindia, eta lan horri lotu zaio, gogo handiz, bere historia luzean.

Pausoak pauso, euskal dialektologiaren lanak behar zuen, ezbairik gabe, euskararen atlas linguistikoa osatzea. Horri ekin zion Euskaltzaindiak aspalditik, eta luzaroko ahaleginaren emaitza modura, jada eskuetan ditugu Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) honen I. , II. ,III. eta IV. liburukiak, hain zuzen ere, V.aren aurrekariak.

Bost liburukiotan, hats luzeko lan xehe eta zehatza aurkituko du liburuki hauen orrialdeetara hurreratzen denak, jardun askoren ekarria. Baditu atzean ordu askoren nekeak eta lorrak, on-gaitzak eta gorabeherak. Ezin bestela izan, euskararen errealitatea esamolde, doinu eta soinu askotarikoa baita, oinarritzko batasunaren sustraian.

Errealitate hori bildu da, ikertu da, eta paperean eta euskarri informatikoan eman da, egungo atlas linguistiko duinek behar duten moduan. Ezin, beraz, aurrerantzean auzitan jarri, hau edo hura, zer non erabiltzen den eta zertarako, Euskal Herri osoa baitago horretan ordezkaturik.

Era berean, Euskaltzaindiak, paperean eta euskarri informatikoan ez ezik, EHHAren lehen lau liburukiak bere webgunean (www.euskaltzaindia.com) ere jarriak ditu. Badaki akademiak, horrela jokatzuz, egitasmo honek duen balio estrategikoa berrindartzen duela eta aldi berean, egungo baliabideek eskatzen eta eskaintzen dutena beldurrik gabe erabiltzen duela, bere lanaren emaitzak egoki gizarteratuz.

Metodologia ez ezik, edukia bera ere da azpimarragarria, hor dugulako, lehen-lehenik, eta Louis Lucien Bonapartek egin zituen hasierako lanen ondoren, hainbat euskalariren eginahalen eta ametsen emaitza erabakigarri eta eredugarria.

Esan gabe doa horretarako bidea Euskaltzaindiak jarri badu ere, beste askoren laguntza izan duela Euskal Akademiak. Eskerrik beroenak guztioi (zuzendari, arduradun, taldekide eta bestelakoei), eta, bereziki, Euskadiko Kutxari, berak ahalbidetu duelako, urtez urte eta eroapen handiz, lan honen argitalpena.

Andres Urrutia

euskaltzainburua